

Jose Antonio Kortajarena Sarasti

ANDONI KORTAJARENA, “EUSKERAREN GUDARIA”



Andoni Kortajarena Aginaga Herreran jaio zen, udal independentzia zuen Altza garai hartan, 1915eko urtarrilaren 16an. José Manuelen, Asteasun jaioa, eta Josefina Doloresen, Aginagakoa, semea zen. Zortzi senide izan ziren. Hamalau urterekin, familiaren beharrak zirela medio, lanean hasi zen, nahiz eta bere irakasleek nahiago izan ikasten jarraitzea, horretarako gaitasuna zuelako.

Nahiz eta ikasketa guztiak gaztelaniaz egin, bere familiak euskaraz hezi zuen, bere bizitza guztian zehar hizkuntza honen alde sustatuz.

Hogeita bat urte zituela, 1936. urtean, guda zibila deklaratu zen, non Saseta Batailoian gudari gisa parte hartu zuen, Euzko Gudaroztean. Intxorta mendian, Elgetan, zauritu eta Laredon (Kantabria) preso egin zuten. Preso zegoela, kontzentrazio kanpo desberdinetatik igaro ondoren, eta beranduago langileen batailoian eta kuartelen batean zerbitzu militarra egin ostean, behin betiko aske geratu zen 1941eko abenduan.

Bizimodu laikora itzuli ondoren, jarduera desberdinetan lan egin ostean, konfiantza ezarri zen, 1980. urtean jubilatuta zen arte.

1943. urtean Juana Lesmes Sarasti oiartzuarrarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba eta lau biloba izan zituzten.

Bere izaera mugikor eta parte-hartzaileak bizitza osoan zehar jarduera desberdinetan parte-hartzea bultzatu zuen, Herrerako San Luis Gonzaga eta Mirakruz



**Andoni Kortajarena Herrerako
lagunekin, 1936 urte inguruan**

gaineko Santa Kruz parrokiarekin eta Herrerako San Luis (La Salle) ikastetxearekin elkarlanak egitera, hala nola, euskararen zein euskal folklorearen hedapenean parte-hartzera.

Herrerako San Luis Gonzaga parrokian, bertako abesbatzaren partaide izan zen eta eginkizun desberdinen antolaketan parte hartu zuen hainbat urtetan zehar.

San Luis ikastetxean, Familia-buruen elkarte katolikoko zuzendaritza batzordeko partaide izan zen, kontatzaile gisa lehenik eta presidente geroago.

Mirakruz gaineko Santa Kruz parrokian, aldiz, kontatzaile lanak bete zituen, baita igandeetako euskarazko mezako laguntzaile moduan, hogeitun urtetan zehar.

Komunikabide desberdinekin lan egin zuen, euskarazkoak gehienak, KORTARA ezizena erabiliz. Haien artean: *Zeruko Argia* (1967-1972), *Goiz Argi* (1974-1975), *Deia* (1983-1986), *Euzkadi* (1979-1983), *ZER*, *El Diario Vasco* (1989-1996) eta *Radio La Voz de Gipuzkoa*.



Kortajarena senar-emaztea Gernikan, 1960 aldean.



Andoni Kortajarena Herrera Kirol Elkartean Imanol Matxaini egindako omenaldian, 1969. urtean.

Euskerazaintzaren (Euskeraren Erri Akademia) kide izan zen. Latxagak, akademia honetako kide garrantzitsua zenak, Andoni "Euskeraren gudaria" izendatu zuen eta bere idazkeraz honela adierazi zuen "Erabiltzen duen euskerak ba du txinparta, garbitasuna eta erro egokiak. Asko lantzen ditu lerroak".

Euskal Telebistaren hastapenean, 1980. urteko hamarkadaren bigarren erdian, *Eresoinkar*ako lan egin zuen, euskararako gidioen itzulpenean, filmetako azpigitulu eran erabiltzeko.

Hautsa kenduz-en 1994, 1996 eta 1997 urteetako argitalpenetan, Altzari buruzko hainbat artikulu idatzi zuen, Altzako Historia Mintegiak eta Kasares-Tomasene kultur etxeak argitaratutakoak.

Herrerako festetako egitarauan ere parte-hartu zuen, artikuluak idatziz, urte askotan zehar. Hala nola, Intxaurren Primera Páginan artikuluak idatziz 1989-1992 urteetan zehar.

PNV eta beranduago EA-ren kultur ekintzen barnean parte hartu zuen, Euskal dantzen irakaskuntzan, euskara klaseak emanez... Bere gaztaroan dantzaria izan zen eta antzerkietan agerraldiak egin zituen.

1981. urtean, erretiratu ostean, Euskara tituluaren azterketa burutu eta gainditu zuen, Bilboko Hizkuntz Eskola Ofizialean. Gainera, 1983. urtean Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) eskuratu zuen.

1985. urtetik aurrera eta hainbat urtetan zehar, literatura ekimenak garatu zituen, euskaraz soilik, hainbat lehiaketatan parte-hartuz, gehienak jubilatuentzat, emaitza onak lortuz. Horien artean:

- 1985. Lehen saria ipuinetan "Zaartzaro eztitsu"ari esker, jubilatuentzat Donostiako udaletxeak antolatutako lehenengo literatur lehiaketan.
- 1986. Lehen saria ipuinetan "Urgull, mendi maitagarria"ri esker, Urgull mendiko lagunek antolatutako literatura lehiaketan.

DOMINGO, 31 DE ENERO DE 1988



PREMIOS A LOS JUBILADOS. El concejal de Bienestar Social del Ayuntamiento de Donostia, Iñaki Barriola, hizo ayer entrega de los primeros premios del concurso de cuentos y poesía convocado en los hogares de jubilados donostiarros. Estos primeros premios, consistentes en 50.000 pesetas cada uno y 10.000 pesetas a cada uno de los centros municipales, recayeron en buen número en el hogar del jubilado de la calle Idiáquez. En la modalidad de euskara, los galardonados, en cuentos y poesía, fueron los pensionistas Andoni Kortajarena y Gotzon Egaña. En castellano, los premios fueron otorgados a Luis María Juaristi y Carmen Corcuera. También se reconocieron, con bandejas de plata, los trabajos de Máximo Álvarez, Serafino Ramírez, Tomás Alegría, Begoña Múgica, Antonio Garmendia y Julia Iglesias. Al final, el Ayuntamiento agasajó a los jubilados con un «lunch» en el salón de recepciones de la Casa Consistorial. (Foto Mikel).

Jubilatuena Ipuin eta Poesia Lehiaketaren sari banaketa (1988)

12 **Noticias de interés** para nuestros mayores.

ENCUENTROS EN LA CAJA DE AHORROS MUNICIPAL LITERATURA

Ganar un premio literario en la jubilación

Seis jubilados guipuzcoanos han recibido otros tantos primeros premios en las modalidades de teatro, poesía y cuento, en euskera y castellano

Ordinaria y Extraordinaria de esta entidad, se procedió a la lectura de los ganadores de este primer certamen, que fueron los siguientes: Josu Arkotxa y Luis Juaristi, primeros premios de teatro, en las euskera y castellano, respectivamente; Gotzon Egaña y Juan Pedro Paulis, ganadores en poesía en euskera y castellano, respectivamente, y Joaquín Carrasco, triunfadores en la modalidad de cuentos, también en euskera y castellano, respectivamente. Algunos de estos ganadores retirieron también premio en otras modalidades de cuento, como Josu Arkotxa, que quedó segundo en cuento, tanto en euskera como en castellano y Andoni Kortajarena, segundo en poesía y tercero en cuento, ambos en euskera.

En las siguientes líneas se ofrece el perfil de cinco de estos escritores, sus inclinaciones literarias, los argumentos de las obras premiadas y algunos otros aspectos personales. Faltan las opiniones de Josu Arkotxa, que no ha podido comparecer a esta cita, debido a que actualmente se encuentra en Argentina. Vaya para todos ellos nuestra felicitación y el deseo de que prosigan en la labor literaria como el mismo entusiasmo que han demostrado hasta ahora y que vienen demostrando con cierta regularidad a través de la revista «Solera», en la que muestran «sabor y el aroma», como definió uno de los cinco ganadores de estos premios. «La sociedad de ahora -añadió- parece que sufre de «juventutis» y nosotros, a través de nuestras colaboraciones en «Solera», queremos demostrar que, aunque no podemos pretender ser fruta fresca, tampoco somos el sarmento seco».

Gotzon Egaña Andoni Kortajarena Luis Juaristi Joaquín Carrasco Juan Pedro Paulis

Gotzon Egaña Andoni Kortajarena Luis Juaristi Joaquín Carrasco Juan Pedro Paulis

1989. urteko jubilatuena literatura lehiaketaren sarituak.



Urrezko eztaiak

Orrialde honetan idazten duen Andoni Kortajarena donostiarrek urrezko eztaiak ospatuko ditu gaur. Berrogeita hamar dira ezkondu zela, Olartzunen, herri hartako Juana Lesmes Sarastirekin. Meza izango dute San Esteban elizan eta egun hauandi honetan aldameanean, hanixe izango dira beren bi semeak, alaba eta lau bilobak. Andoni gudari ibili zen gerra garaian Saseta komandantearen gudaoketan eta gero bi urte egin zituen preso. Hantxek eztera lizuzila, zizera baitalos bitoan juri zuten lanetan, han urtebetez aritu zolarik. Enpresa hartan kontulari egin zituen ondoren hainbat urte. Idazten, «Zeruko Argia» aldizkarian hasi zen, 1965. urte aldera. Gero «Deta» egunkariko berri-emale ere izan zen. Jubilatu eta gero hasi zen euskara hobagotzen eta bere idazkera trebatzen. Gure aldetik hainxe opa nahi diegu adre-gizonok: urte askotan seg. dezatela zoriontsu eta osasuntsu. Argazkian, Juana eta Andoni. JAVGUES

Andoni Kortajarena eta Juana Lesmes Sarasti senar-emazteen urrezko eztaiak (1993)

- 1988. Lehen saria ipuinetan, Donostiako udaletxeak jubilatuentzat antolatutako lehiaketan.
- 1988. Laugarren postua ipuinetan, Euskerazaleak Alkartek antolatua, "Oke-la bikain eta merkea"ri esker.
- 1989. Lehen saria ipuinetan, Gipuzkoako jubilatuen elkarteak antolatutako lehiaketan, "Pello Joxe eta Pirmin'en amets osatugabeak"-ri esker, eta hirugarren postua "Inazio Mari'ren balio gutxiko altxorra"ri esker. Bigarren postua olerkigintzan "Aurrerapenen ondorio mikatza"ri esker.
- 1993. Bigarren postua ipuinetan, Euskerazaleak Alkartek antolatuta, "Aitona sinisgogorra"ri esker.
- 1997. Hirugarren saria ipuinetan, Euskerazaleak Alkartek antolatuta, "Pantxika anderea eta merkealdiak"ri esker.

1999ko azaroaren 12an hil zen Intxaurren (Donostia), 84 urte zituela.

Bere ibilbidearen adibide batzuk aukeratu ditugu eta biografia honen segidan irakurri ahal izango dituzue. Aukeratutakoak hauek dira:

- Bertsoak: "GURE ERRERA'RI", Herrerako jaien egitarauan argitaratua, 1967.
- Kronikak:
 - "Errera", Zeruko Argia astekarian: 1967-12-10; 1971-03-07; 1971-10-17
 - "Herrera-Altza (Donostia)", Euzkadi aldizkarian, 1979-09-20
- Artikuluak:
 - "Altza erabat aldatu da azken urteotan", Deia egunkarian, 1983-04-19
 - "Garai bateko argi motelak", Diario Vasco, 1990-03-11
 - "Izadiaren antzeko gera gu", Diario Vasco, 1992-12-10
- Ipuinak:
 - "Pello Joxe eta Pirmin'en amets osatugabeak", 1989
 - "Egindako promesa zintzo bete bear da", "Intxaurren Primera Páginan", 1989

GURE ERRERA ´RI
(Herrerako jaien egitarauan argitaratua, 1967)

- 1) Errera ´ko jaiak dirala eta ausarditu naiz lan ontan, maitasuna berari asalduez bertso batzuetan; ez da erreza artu detana, lana zakona, benetan, saiatuko naiz ala ta ere arazo berezi ontan.
- 2) Maitasuna da danen gañeko birtuterik jatorrena orregatikan iruditzen zait gairikan egokiena; Errera ´ri gaur asaldutzeko diotan maitasun dana, Jaunari eskatuaz orretarako argitasuna ta almena.
- 3) Errera ´n jaio eta bertan bizi neretzat da pozgarriena urte askoan izan dedilla nai nuke itxaropena; era orretan beti izateko, orrela egokitasuna, berari eskeintzeko urtero bertsozik kutunena.
- 4) Urte askoan bizi nai nuke txoko maite onetan nik, beraren alde nabarmentzeko maitasuna nun-naitik; bakoitzak bere ama kutun-du ezaguera dun unetik, naiz ez ikusi besteak bezela edertasunez apaindurik.
- 5) Errera ´n jaioterrikoentzat badu alako pozgarri bat, ez da ederra, bai egokia, ibilli bear duanentzat; Donosti auzuan ez da beste leku bat erreztasunez betea ainbat, beragatik ez nuke nai nik beste toki bat neretzat.
- 6) Bizimodurako errestazunak ugari ditugu emen, ez degu arkitzen utsunik osasunez bagaude kemen; zer geiago bear degu ba bizitzeko erri baten, eta gauz guzien gañetikan pakea izan zagun lenen.
- 7) Eta nere azken bertso onekin opa diet biztanle guztiari, jai alaitsuak igaro eta zorionak ugari; maita dezagun gure erria kontu egiñaz berari eta danen gañetik, eta beti, agur gure Errerari.

Kortara

ERRERA
("Zeruko Argia" aldizkaria, 1967-12-10)

ELIZTARRENTZAKO BERRIAK

Negua eldu da eta berakin otza inguratu zaigu.

Gure eliz nagusian beroketa piztu dute eta orrekin atsegiñago zaigu elizkizunetara joatea.

Gorputzeko beroak ia berotzen ditun gure animak ere eta kristau giroa bear bezela eramaten degun.

Eguarri jaiak inguratzen ari dira eta elizako bearrak ornitzeko eta gure parrokioko beartsuari legezko duten laguntza eskeintzeko, parroki eguna eratu dute illonen 24 laurako (igandea).

Ez bada egun zoragarri oiek gogoan edukirik ia esku zabalak izaten geran gure emaitza eskeintzeko garaian, elizako bearretarako eta erabat beartsueri laguntzeko, danok batean alai eta pozgarri igaro dizagun Gure Jauna´ren jaiotzako jai es-titsu auek.

Alde batetik diru kontua eta bestetik ospatu dezagun parroki-egun ori, egun orretan izango diran elizkizun berezitara, bada gorputzen-tzako bakarrik ez dute bear izan orrelako jaiak eta danak alkaturik eskatu dezagun, egun orretan, danogatik, gure sendi, auzo, gaxo gorputzeko eta animakoagatik eta danon artean osa dezagun kristau sendi oso bat Errera´ko eliztar guztiak.

ERRERAKO ABESTALDEA

Joan dan illeko azkenango igandean elizako abeslariak beren jaialdi ospatu zuten, beren zaindari Zezilia deunaren omenez. Amaiketerditako mezetan abesti batzuk abestu eta ondorenean "Liberame" bat illen alde eskeñi ondoren, Oiartzun´go "Bonantza" jatetxean bildu ziran talde bat. Egun alai bat igaro zuten lagun artean eta pozik etxeratu ziran. Jarrai orrela, orain arte bezela, zintzo, Laskonategiren "batuta" pean eta izan zaiteste zuen erritarren alaigarri.

JAIOTZA

Etxeberría´tar Martin eta Muxika´tar Agurtzane, Errera´ko ikastolako irakasleak, alabatxo bat izan dute. Bataiatzekoan, Miren Itxaso izena ipiñi diote. Zorionak gurasoei eta beren aiton-amon Balendin eta Nekane´ri, ia euskaltzale bat egi-ten dezuten gure erritar berria.

NASTE BORRASTE

Erosotasunez betea dago auzo au eta berarekin ditun kalteak ere ugari ditugu emen. Bildurgarria dago Sarriegi´ren etxe aurreko enparantza, bada bertatik lau aldetara banatzen dan bidea. Ikustekoa da une batzutan zer iskanbilla sortzen dan esandako toki onetan, bada txikia da eta berebill asko igarotzen da bertatik, batzuak gorako besteak berako eta bide-zabalera irteteko geldi bearra nola daukaten, noiz nai gelditzen dira ez aurrera ez atzera ziara nasturik, eta tamalgarriena dana jendea oien tartetik igaro bear duala.

Ez da erreza au bear dan bezela antolatzea bañan zerbait egin bearra dago bada egunen batean, zoritxarrez, gertakizun negargarri bat gertatu liteke.

Kortara

ERRERA
("Zeruko Argia" aldizkaria, 1971-03-07)

OMENALDIA

Gaur, igandean, Martxoaren 7an Altzan ospatuko da, bertako sendagille dan Irigoien, Erromanen, ondo irabazia duen omenaldia. 1934 urtea ezkerero auzo ontako familietako sendagille izan da. Ogeitamasei urte erri bateko osasuna zaintzen salatu danari zor zaio orrelako omenaldia. Amabitan meza abestua izango da eliza nagusian, ondoren dantza saioa, Errerako Batasunako taldearen gain, eta ordu bitan, Intxaurrendoko Zubiaurre jatetxean, alkartasuneko bazkaria, bertsolariak tartean dirala. Jendetza aundia bilduko dala jaialdi onetara uste dugu, izan ere giro berezia nabaritzen da ori dala-ta. Agur Irigoien Jauna, ongi irabazia duzu eta Zorionak.

ERRI-AMETSA, IKASTOLA

Joan dan otsaillaren 21 ean, igandea, eguerdiko amabitan, ospatu zan, Erri-Ametsa ikastolako batzar nagusia.

Jende asko inguratu zan Parrokiko itzaldi gelara batez ere ikasleen gurasoak eta gaiñontzeko bazkideak.

Yartzatar Joseba Mirena, leendakariak, egin zuen itz aurre bat, eta ondorenean, Berasategitar Karmele, andereño-irakasleak, itzaldi berezi bat eskeñi zigun, euskeraz ta erderaz, ikastolako gora-beerak eta bere etenkizunaren gain, euskera eta izkera goxo eta xamurra erabiliaz.

Ikastolako jokaera garbi azaldu zuen eta metodo egokiak nota artu diran, era ontan gaurko eguneko egoerari dagokion bezela gure umetxoak ikasi dezaten.

Berriro, leendakariak azaldu zituen ikastolako arazoak, dirutza kontua aztertuaz eta orain arte izan diran oztopoak eta buruaustek, ikastola aurrera ateratzeko. Toki guzietan bezela diru kontua gauza larria izaten da eta orretaz gaiñera salazailleak ostopoak jarri ezkerero, biotz aundia bear da gauzak aurrera eramateko.

Bost urte dira ikastola au lanean asi zala, eta urtero toki berrian, bañan iritxi da garaia bein-betiko leku egoki eta berezi bat antolatzeko.

Leenengo jakin arazi zigun 131 umetxo dabiltzala aurtengo ikastaroan eta gero

ta geiago datozela beren buruak izenpetzea urrengo ikastaroako. Auei erakusteko bost andereño daude eta au da pozgarriena, bostak erreratarrak. Bejondeizela.

Ikastol au ofizialki ezagutua dago, onek esan nai du, alegia, ikastola ontan ikasten dutenak ez dutela oztoporik izango aurrera jarraitzeko beren ikasketakin, baxillera eta abar.

Eta gai sakonena azken aldera aztertu zan; leku berria.

Aukeratuta dago leku ori toki berezi batean, etxe berri baten azpian, baiñan garesti xamarra; bi milloi pezeta inguru. Nola sortu orrenbeste diru? Emen dago koxka.

Erriak lagundu bear gure nortasunari eutsi nai badiogu, au da egin bear deguna. Nola baiña?

Bazkide egin eta illero zerbait eman eta aldan bazkide geienak sortu. Bazkide pilla bat sortu ezkeru, lareun, bosteunen bat, eta illero bakoitzak ogei ogerleku (duro) eman ezkeru urte gutxitan ornituko litzake zor ori eta Errerak izango luke ikastola eder bat bere bearretarako.

Beraz badakizu irakurle, euskaltzale jator bezela jokatu arazo ontan, zure ize-na eman leenbaileen, bazkide egin, eta lagundu aal dezun eran eusko ikastolaren alde, giroa sortuaz eta adiskideak berotuaz berak ere bazkide izan ditezen; ea dannon artean lortzen degun ain bearra dan lekua ikastola egoki bat sortzeko Errerako euskal umetxoek toki egoki bat beren ikaskuntzarako izan dezaten.

Eta leendakariak esan zuen bezela batek baiño geiagok nai badute eskua luzatu eta geiago eman, naiz asko xamar izan, pozik artuko zaio bere emaitza.

Kortara

ERRERA
("Zeruko Argia" aldizkaria, 1971-10-17)

ERRI AMETSA IKASTOLA

Aurtengo ikastaroa ikastola berrian asia da, egitazko ikastolan. Au bai dala berri pozgarria! Aspaldiko ametsa.

Orrenbeste urtetan gure aurtxoak or ibilli dira bein leku batean, eta beste bein beste leku batean, urtero tokiz aldatuz.

Baiña bein betiko moldatu da leku berezi bat, egoki eta segurua. Ikastola berria Peruene Berri deritzan etxe berriko azpiko aldean dago.

Leku berezia, egutera eta bakardadean dagoena naiz eta San Luis enparantzatik oso bertara egon.

Oraingoz bost ikas-gela antolatu dira, aurtengoz naikoa diralako, baiña beste zazpi edo zortzi geiago moldatzeko lekua ba dago. Jolas lekuak eta abar, denak estalirik daude.

Aurtengo ikastaroan 160 umetxo dabilta, eta batzuek ez dute egokierarik izan berandu gogoratu diralako. Gauzak orrela dirala, umetxoak pozik eta gurasoak kezkatu, leku berria erosi egin da, eta orain ordaindu egin bear da.

Kezka aundia oraingoz eta gerorako ere bai, izan ere dirutza aundia bear da egin dan zorra ornitzeko. Iru milloi terdi pezeta kostako da dena moldatu ordurako, eta ez da txantxa. Nondik sortu orrenbeste diru? Beti bezela. Gure nortasunari eutsi nai badiogu guk ordaindu bear.

Nola? Erriaren laguntzaz.

Oraingoz 200 laguntzaille ditu Erri Ametsa ikastolak, baiña beste orrenbeste edo iru aldiz geiago bearko dira bear dan bezela eramango badegu gure ikastolaren egoera, bada bakoitzak, batz beste, ogei duro illero eman, eta esan bezela, bosteun edo seireun laguntzaille osatu eskero, or nunbait ibilliko litzake zorraren orniketa.

Laster egingo da batzar berezi bat au dala-ta, eta bertan agertuko dira gai onen xeetasunak, argi eta garbi, denek jakin dezaten ikastolen egoera eta jokaera.

Beraz, beti bezela, laguntza bear du Erri Ametsa ikastolak, eta aspildiko ametsa egia biur dedin, gauzak ikusi bear ditugu diran bezela, eta jakiña laguntza opa-roa bakoitzak al duan eran eta moduan eman bear du. Onela Errerako ikastola au erriarena eta erriantzako izango da.

JAIOTZA

Yartza-Etxebeste sendiak neskatilla bat izan du. Aitziber izena ipiñi diote euskotar berri oni eta orretaz gaiñera euskaldun berri bat izango duala auzo onek itxaro degu. Zorionak!

EZKONTZA

Berrero uztartu dira auzo ontako Peñatar Miren Pillare, andereño xarmanta, eta Olazabal-Mendizabal, irundar jatorra. Urte askotarako zorion ugariak opa dizue au izenpetzen duanak.

DONOSTIA INGURUKO BIDE BERRIA

Burni bidea leengo lekuan jarri dute berriz, bada aldatu bearra izan zan lan aundiak egiteko.

Kamioa moztu zuten eta berrero ere osatu zuten, bi azpi bide edo "tunelak" ere ia bukatu dituzte.

"Topoko" inguruak zubi aundi baten abeak jarri dituzte eta laister zubia ere egingo dute.

Lurra eraman emendik ara eta andik onera ekarri dabilta azkenengo iru edo lau urte auetan.

Lanak aurrera dijoaz, naiz motel xamar, eta itxaro degu laister bukatuko dirala. Laister diot, bada beste urte bat geiago ez da asko; orrenbeste igaro dira asi ziranetik.

Auzo ontatik Kosta aldera edo Goierri aldera joateko alde aundia izango da, bada emendik Añorgara bosten bat kilometro izango dira eta gaiñera Donostiatik igaro bearrik gabe.

Auek orrela dira baiña bildur gera bukatzerako beste ideren batekin asi bearrean arkituko ote diran, bada bide au egiten asi ziranean baiño, gaur bertan, Gipuzkoan bakarrik, berrogei milla auto geiago ba da.

Kortara

HERRERA-ALTZA (Donostia)
("Euzkadi" aldizkaria, 1979-09-20)

Batzoki berria irikia dago nai duten guztientzako. Ateak zabalik daude etorri nai dutenentzat, naiz izketaldi batean solasteko, naiz egarria kentzeko bada orretarako edari-leku eder bat antolatua dago, ta baita ere sukalde eder bat apari-mendiak gertutzeko lagun artean mokaru goxoak jateko.

Orretaz gañera gure batzokiak leku ederrak dauzka lan taldeetakoak beren bazarrak egiteko eta dagozkien lanak bertan moldatzeko.

Uda-oporraldia igaro orduko asiko gera gogor lanean era askotako eginkizunetan eta itxaropentsu gaude giro berezi bat sortuko dela era ortan.

Burrukatzeko garai eldu da (ez mutur joka, noski) eta lan asko egin bearrean gera gure aberriaren alde. Oraingoz Araudia´ren baietza lortzeko eta geroago bera ondoren onera eramateko gai gerala erakutsiaz gure nortasuna nabarmentzeko, egoeki eta zintzo jokatuaz, ainbeste urteetako menpetasuna gallenduaz egoera berri bat lortzeko, anaitasun jator batean bizitzeko eta gure anai naparrak gureganatuaz, baita ere ipar-aldekoak, Euzkadi´ren askatasun eguzkiaren argi ta berotasuna euzkotar biotz guzietan esartzeko.

Gauzak orrela diralarik oso itxaropentsu gaude era guzietako laguntzak izango ditugula, batzuk lana egiñaz, beste batzuk berotasuna eskeñiaz eta baita ere diru opariak emanaz bada aueren premian arkitzen gera ordainketa aundiak egin bear direlako. Beraz, ateak irikiak dauden ezkerro, etor zaitezte eta beso zabalik ongi etorriak izango zerate. Egunero, illunabarrean irikia arkituko dezute zuen Euzko Etxea.

Ill onen 20´ean, ostegunean, arratsaldeko 8´etan itzaldi berezi bat izango da, Xabier Arzalluz izlari delarik. Euzko Alderdi Jeltzalearen Politika azterketa izango da bere gaia. Lekua, Batzokia.

Azkenik, urrengo illean, Urria´ren 14 garrenean, izango da Euzko Etxean, gure batzokiaren askundea.

Laister emango ditugu zeaztasunak egitarau argitaratuz.

Bien-bitartean, agur.

Kortara

ALTZA ERABAT ALDATU DA AZKEN URTEOTAN ("Deia" egunkaria, 1983-04-19)

Joan zan igandean auzokideei egindako agurrean, elebitan mintzatuko giñala auzo ontako berriak ematerakoan esaten genuen. Orregatik txandakatuaz, gaurkoa euskeraz izango da.

Altza zaarrari buruz izango da gure gaurko jardunaldia, euskaldun utsa zan Altzagatik mintzatuaz.

Alderdi au baserriz osatutako lekua zan, sagardotegiz betea; amaika sagardo eder, txinpartatsuak, edateko egokiera izaten zan Mirasuan, Martillun, Kataliñene eta beste ainbesteetan. Orduko esaera bat askotan entzun izan oi da, batenbateg (bertsolariren batek noski) leku bateko sagardo bereziren bat aipatzerakoan esan zuena: "Ura zan ura, urik gabea".

Orain berriz, urte askotan bere artan jarraitu ondoren, baserritar giro ura zearo aldatu da, ta len urrutitik, lau egaletatik ikusten zan gaingaiñean dagon elizako dorrea, bertaratu arte ez dala ikusten esan daiteke inguru guzian bera baiño luzeagoak diran etxeak eraikita, estaltzen dutelako.

Beste orrenbeste gertatu zaio illerriari, kanposantuari, leenago bakardadean zagonari. Inguru guziak goi-ta-be, ezker-eskubiak etxez ornitu dira eta len atsedeneku zana orain bizi lekuak eurekin dituzten arazopean aurkitzen da.

Euskerari buruz berriz, leenago euskera utsa entzuten zan lekua alderantziz biurtu da, leenago kanpokaldetik etorritakoen seme-alabek euskera ikasten zuten bertakoeekin jolastuaz eta, orain berriz, bertakoenak nekepean euskera ikasten dute, gutxi mintzatzen dalako. Gertakizun oni buruz aurrerapenak eta bere ondorioak gure izkera atzerakatu egin dute, baiña ala ta ere ez al gera ain ergelak izango egoera ori ikusirik gure euskera maitea, neketan bizi dana, galtzen uzteko.

Beste alde bat ba degu, leenago Matxikar, Arria-zar eta Arria-berri baserriak kokatuak zeuden lurak gaur egun etxe pillaz beteak daudenak, beste uri bat ba-litz bezela agertzen dana, ainbeste buruauste sor arazten duena, eraikitze orrek sortu dituen bearrak eta ainbeste arazo kontuan izanik.

Aipatutako gertakizunak kontuan izanik aurrerantzean gure eginbearrak arazo auetara urbiduko dira. Orregatik leenengotik gauza auetaz giro bat sortzeko asmos dijoazkizute lerro auek eta egindakoak aipatuaz, ornitzeko palta diranak aztertuz jarraituko degu DEIAk eskeitzen digun zati ontatik.

Kortara

GARAI BATEKO ARGİ MOTELAK ("Diario Vasco" egunkaria, 1990-03-11)

Egun batez, Uria mendian gertatu nintzan eta illunabar aldera etxeruntz abiatu nintzanean, uste ez nuan ikuspegi batek txunditu ninduan. Eguraldi odeitsua zan, eta uste baiño leenago illundu zualarik, Donosti'ren beste ikuspegi eder bat ikusi aal izan nuan. Uriko argiak piztu ziranean, Kontxa'ko urak distiratsu bihurtu ziran eta, era berean, ispillu baten antzera, argitasuna odeitaraiño bidaltzen zuten, Donosti inguru guztia argituz. Gaur idazten asi naizenean, egun artan ikusitakoa gogoratuz, "Garai bateko oroitzapenak" gaiaren zazpigarren atala osatzeko modua gertatu zait, gure gaztaroko argien motelasunarekin berdinkatuz.

Ni bizi nintzan etxean eta beste askotan ere berdin, garai artan pezta batek baliu aundia zuan, irabaztea asko kostatzen zalako, argi-indarra ongi neurtua banatzen zuten etxeetara. Kontadorerik ez zuten ezartzen, baiña bai "limitadorea" esaten ziztzaion tresna bat, bakoitzak ordaintzen zuan argi-indarra baiño geiago ez kastatzeko. Orduan, tximist-indarrak 125 v. izaten zituan eta argia ematen zuten, murtur-zorrotzeko udare itxurako bonbilla merkeenak, 25 bujiakoak izaten ziran.

Aldi berean, bi argi bakarrik piztuta euki genitzakean, irugarrena pizten zanean argi danak kiñuka asten ziran eta derrigorrean bat itzali bear izaten zan. Era ontan, batetik argi-indarra indar gutxikoa eta bestetik, bonbillak neurri txikienekoa, ipurtargiak ematen zuten.

Gogoan dut, nere aitaren jaiotetxe-baserrian, beste askotan bezala, ez zutela urik ezta argi-indarririk ere. Edateko eta garbitasunerako ura, aparte xamar zegoan iturri batetik suilletan ekartzen zuten, eta beiak errekarera eramaten zituzten edatera. Karbueroekin argi egiten zuten kinkeak erabiltzen zituzten argitzeko, eta beiak jezten eta bazkatzen, abetik zintzilik zituztela aritzen ziran.

Arrantz-ontziak karbueroz baliatzen ziran farolak eta ezker-eskubi eramaten dituzten argi gorri eta orlegia argitzeko, eta berdin berebillak. Artean ez zuten, erabat, orain bezala, dinamoarekin sortzen argi-indarra itsas-ontzietan eta bateriekin argitzen berebillak. Trenetan ere, artean lurruiñarekin ibiltzen ziralarik, ez dakit ziur baiña, nere ustez, olioaren bitartez argitzen zituzten bidarien bagoaik, goitikan piztuz illunabarrean.

Donosti'ko kale batzuk eta bere auzoetako bideak, "Morlans'en egiten zuten gasakin argitzen zituzten. Illuntze aldera, "faroleroak" deitzen zitzaienak, aga luze batzuekin eliz-mutillak kandelak piztutzen zituzten eran- kako batekin gasaren gilitza iriki eta muturrean zeramakiten, aurrentzat erabiltzen dan "labatibaren" an-

tzeko gomazko tutu batekin, farolak barruan izaten zuten “kamisa” piztutzen zuten. Goizetan berriz, eguna argitu ordurako, alderantziz jokatzen zuten, bezperan irikitako giltza itxiz. Aipatutako farolak kale ertzetako paretetan ezarriak egoten ziran eta bideetan, berriz, burnizko abe batzutan. Donostiako auzoetan oraindik ikus daitezke bakar batzuk, gaurko egunean argi-indarrez argitzen dutenak.

Zakurrak, aietara urbildu eta anka bat jasoz, maskuria ustutzeko oitura izaten zuten, beren pixa-leku bañit bezala.

Bakardadean bizi ziranak illargiaren argiz baliatu bear izaten zuten, eta gure “izarbela” ikusterik izaten ez zanetan, eskuko argi-ontziekin, barruan espelmazko kandela piztua zutela ibilli bear izaten zuten.

Bukatzeko, txantxetan diot, argi aiek piztuak zeuden jakiteko bertaratu egin bear izaten zala, ez zutelako urrutira argitzen.

Andoni Kortajarena

IZADIAREN ANTZEKO GERA GU ("Diario Vasco" egunkaria, 1992-12-10)

Beldur giñan baiña izadiak bere izaerari jarraituz, aurten ere, naiz berandu xamar, bidali dizkigu udazkeneko egoaize epel gozoak, eta urtero bezala, zugaitzek ostu orituak galdu dituztelarik, ni bizi naizen lekutik beste ikuspegi batez gozatzeko egokiera gertatzen zait, azaroko azken egunotan.

Egutegiak urteko aroak adierazten dituan eran, kontuan izanik aurtengo udazkenean, urrila il osoa eta azaroaren lenengo ogeialdia urte gutxitan bezalako bustiak gertatu zaizkigula, ia etsita geunden garai bakoitzari dagokion eguraldien egoera aldatu ote dan, edo... bada, urrilleko eguraldi egoaizetsu epelak atsegiñak gertatzen bai-dira, bai kaletarrontzat eta zer esanik ez nekazariantzat; auek, urteko emaitzak, ongi eldutako arto, babarrun, eta era ortako barazkiak jaso ta ganbaratzeko, eta ortan negu beltza irixten danean, elurte eta ekaitz gogorrek gertatzen diranean, etxe-giro gozoan negua igaro aal izateko. Nere amona zanak, bera ere baserritarra zalarik, esaten zuen bezala; kaleko langilletaz urrikaldu egiten zala neguko eguraldi gordiñetan kanpo-lanean ari bear izaten zutelako, ikusirik bere etxean kanpo-lanerako girorik ez zutenean teillapeko lanak egiñez igarotzen zituztela era ortako egunak; mandioko belar onduaz elikatuz eta etxeko konpoketak egiñez, gaurko egunean esaten dugun "brikolaje" lanetan arituz.

Idazten ari naizen gelatiz so egiñez ikusten dan ikuspegia atsegiña da, kontuan izanik urtaro guztiak izaten dutela bere berezitasuna eta udazkenak ere bai. Ain zuzen, aurrekaldean dagon menditxoko zugaitzetako urre koloreko ostu ordelduak eta garo-sail gorrituak, illunabarrean eguzki-irripar jotzen ditunean, alako baretasun bat sortzen du sentiberak diranean barruan eta gogamen batzuk bururatzen zaizkit, izadiari buruzkoak, alegia, urteko edozein arotan zoragarria dala.

Izan ere, urtero eraberritzen dan moduan, ernetu, landaretu, aletu, eta emaitza eman ondoren legortu, usteldu eta azkenik desegin, landare berrientzat lekua utziz.

Azken batean, izadiari gertatzen zaiona bera gertatzen zaigu guri ere, gizakioi: jaio, azi, ezi, eldu, zaartu eta izadiko landareak bezala auts biurtu, ondorengoei toki uzteko. Esate baterako, bi eratakoak gera bizidunak, adimen edo arrazoidunak eta adimen-gabekoak edo abereak, eta, bestaldetik, landareak, sortutako lekutik bere gisa mugitzen ez diranak, baiña, danon joera berdiña izaten da, bein sortu eskero bukatu egin bear, eta nere iritzia, zera da; aurrerapenen bidez ez dadilla sortu illezkertasuna lortu lezakean botikarik, bada orduan ere dirudunak, nola edo ala aberastutakoak bakarrik izango bai-lirake ori lortzeko modua izango luketenak.

Beraz, bere artan jarrai dezala gizakion egoerak, zerbaitetan berdiñak izan bear dugulako danok, esaera zaarrak dion bezala: "Jaiotzak eriotza zor du".

Andoni Kortajarena

**PELLO JOXE ETA PIRMIN´EN AMETS OSATUGABEAK
(Gipuzkoa´ko Jubilatu eta Pentsiodunen Elkarteak eratutako
ipuin leiaketan Lenengo saria, 1989)**

1920´garren urte inguruan, Moro´en aurkako gerrara, Afrika´ra ez joateagatik eta lurralde zakar aietan bi edo iru urte ez igaro bear izateagatik, Euskalerrri´ko baserrietako amaika gaztek "anka" egin izan zuten beren "txokoetatik", soldadutzarako garaia eldu zitzaizenean, gaztaroko urterik ederrenetan, ezer ikustekorik ez zuten gerra petral artan beren buruak murgilduta ez ikusteagatik.

Bein erabaki ura artu ezkerro, geienek, Ego-Amerika´ko lurraldeetara jotzen zuten, leenago ere euskaldun askok egin zuten bezala, jakiñik urte mordoska bat bertan igaro bearko zutela berriz etxera biurtzerako, "desertor" bezala artuko bai ziztuzten. Eta, bein aldendu ezkerro, euren aurretik askok egindako jokabideari jarraituz, gaztea ameslari eta ausarta izaten dalarik, baita ere diru pixka bat aurreratzeko asmoekin, geroago, "indiano" itxuran jaioterrira biurtzeko.

"Goikoerrotaberrigorri" ko Pello Joxe, ogei urte beteak zituenak, soldadutzarako deia artu baiño leenago, iñori ezer esan gabe, aita-ama eta anai zaarrenari ezik, bere adiskide eta adin bereko oso gazterik aita eta ama illik umezurtz gelditua eta "Errotazarberritua" n jasoa izan zana Pirmin´kin batera, egun batez, oso goiz, irten zan etxetik. Eta Bilbo aldera jo zuten, kai artan, Amerika aldera zijoan itsas-ontziren bat artzeko asmoekin.

Etxetik irteterakoan, bere ama gaxoak, zillarrezko berrogei "duro", iñork ez zekian ganbarako zoko batean gordeak zeuzkanetatik, eman zizkion Pello Joxe´ri, musu-zapi baten muturrean loturik, bideko gastuetarako eta lenengo egunetan zerekin jan aal izateko.

Lenengotik naiko suerte ona izan zuten, bada kaieratu ziranarekin batera jakin aal izan zuten andik egun pare batera itsas-ontzi aundi bat irtengo zala berak joan nai zuten lurraldeetara, zamak eta bidariak eramango zitula, eta kaiez-kai geldialdiak egiñez, illabete pare batean iritxiko zala Buenos Aires´era.

Eskola aundirik gabeak eta erderaz tipili-tapala itz egiñarren, egin zituzten moduak ontzi artan ibillaldia doanean egiteko, mantenua eta bide-sariaren truke lana egiñez.

Itsas-ontzian igaro zituzten lenengo egunak ez ziran oso atsegiñak izan eurentzat. Sekulan itsasoan ibilli gabeak eta urrutitik bakarrik ikusia zutelarik, Bilbo´tik irtenda Vigo´ko kaira iritxi arteraiñoko iru egunak oso gogorrak gertatu zitzaizkien;

itsasoa oso aserre jarri bai zan itsasoratu ta laster, bereziki, Finisterre ingurua ze-
arkatzerakoan. Lenengo, urdailla ederki ustu zuten barrenean zeukaten guztia eta
ez zeukatena ere, arrainen janari biurtuz.

Ez zekiten burua bizkar gaiñean ala ankazpian zeukaten, zearo zorabiatu bai
ziran; sei metroko olatuak, ontziaren aurrekaldea gora eta atzekaldea beera, eta urren-
goan alderantziz, branka urpean zuelarik itsas-urak ontzi gaiñean barrena, ontzia
ondora joango zan beldurrez. Es ziran kaieratu nai ordurako!

Vigo´ko kaian bi egun t´erdi pasa zituzten, lurrun-galdara berotzeko bear zi-
ran millaka kilo ikatz eta beste leku batzuetara eramateko zamak ontziaren sabelean
sartzen. Bitarte ortan, gure bi adiskideek, beren onera etorri ziralarik, batak bes-
tearekin era ontan oldozten zuten. Batek ala zion:

“Motel, nik uste niken, aidean nebillera, ain azkar gora joaten uan ontzia nola be-
eraka jaisten ukan. A zer estutasunak igaro ditudan iru egun oietan”. Besteak berriz:

“Nik uste niken itsas-ontzi aundi auek legun-legun ibiltzen zirala itsas zaba-
lean, lerak gure soro-zelaietan bezala; ez niken iñolaz ere sinistuko, ikusi izan ez
ba´nu, orrenbesteko ontzi puska, mandotzarrak bezala saltoka ur gaiñean ibiltzen
ikusi bear nuenik, are gutxiago urak orrenbesteko indarra zuenik. Orain sinisten
diat esaera zarrak diona : “Ura eta sua bere neurrian”.

Lenengo iru egunetako estualdiak ez zituzten geiago igaro bear izan eta Por-
tugal, Cadiz, Canarias´etako portuetan geldi-aldiak egiñez, barrenean zeramazkion
zama batzuk utziz eta besteak ontziratuz, Atlantiko itsas-zabala zearkatzen asi zi-
ran eta aste pare batean, zerua goien eta ura bean besterik ikusten ez zutela, iritxi
ziran Ego-Amerika´ko itsas-bastarrera eta itsas-ertz artako portu batzuetan geldi-
aldi labur batzuk egiñez, azkenik eldu ziran Buenos Aires, uri aundira, beren el-
mugara.

Ontzikoak agurtu ondoren, txapela buruan eta erropa-pardeltxoa eskutan zu-
tela lurreratu ziranean, euren itxura ikusi ordurako antzematen bai zitzairen non-
goak ziran, bereala, berrogei ta amar bat urte inguruko gizon bat urbildu zitzairen
eta euskeraz itz egin zien. Bereala jakin erazi zien bera ere ogei ta amar urte lee-
nago egoera ortan iritxi zala lurralde artara eta gaurko egunean, bereak eta bi ja-
san ondoren, ongi xamar aurkitzen zala, ba da urte askotako morrontza latza egin
bear izan arren, “rantxo” aberats bateko arduradun izendatu zutela eta, ain zuzen,
jakiñik egun artan Bilbo aldetik zetorren itsas-ontzi bat elduko zala, kai aldera in-
guratu zanean ikusi ordurako konturatu zala biak euskaldunak zirala eta orrega-
tik urbildu zitzaiea.

Berriketan asi ordurako agindu zien, nai ba'zuten beintzat, bere ardurapean zegoen "rantxo" ra eramango zitula, langille on eta jatorren bearrean aurkitzen zalako eta naiago zitula berez baserritar ziranak, naiz ango eta emengo kanpo-lanak egiteko era oso ezberdiña izan. Bi adiskideak poztu ziran egin zien eskeintzarekin eta bereala baiezkua eman zioten. Izan ere, zer egin zezaketen egoera artan, zerua goian eta lurra bean eta "duro" batzuk besterik sakelean ez zituztelarik Amerika oinpetu zutenean?

Lanerako bearroko zituzten arropak eta oiñetakoak erosteko dirua aurreratu egin zien eta non erosi erakutsi ere bai. Ondoren, bazkari-lege bat eginda gero, trenerratu egin ziran. Sei orduko ibillaldia egoaldera, leku zelaietan barrena mendiak oso urruti ikusten ziran parajeetan, egin ondoren, iritxi ziran dozena pare bat etxe, geienak egurrezkoak ziranak, argi-indarra ez zuan erri kaskar bateko geltokira. Trenetik jetxi ta bereala, zaldi pare batek zeraman karro aundi batean beste bi orduko ibillaldia egin zuten autsez betetako bide batean zear, pare-gabeko berdintasun zabalako lurretan, geroago berak zaindu bearroko zituztenak, eta illunabarrerako iritxi ziran, andik aurrera beren kokalekua izango zan egurrezko etxola batera. Barreren, mai bat, lau aulki eta beste orrenbeste zurezko oe zeuden bata bestearen gainean, eta txoko batean sukaldetxoa. Lotarako, berriz, txurikiñez betetako zaku aundi batzuk eta estalkitarako dozena erdi bat manta.

Orain txabola utsik zegoan, leengo maizterrak, baztandar ziranak, berriro alde egiñak omen ziran, bizimodua aldatzeko aitzakiarekin.

Ara eramán zituanak, an utzi zituan, esanez urrengo egunean etorriko zala argibideak ematera eta beren zeregiñak erakustera, eta "despensan" zegonekin aparria prestatzeko, aal zuten eran. Nolako edo alako otordua moldatu zuten; zaku batean lursagarriak, kutxa batean aragi zezindua eta botella batean olio kondar bat aurkitu zituzten eta era ortan gosea kentzeko modua egin zuten.

Apaltzen ari zirala, bata besteari onela zioten: Nora etorri gaituk!. Au munduaren azkeneko muturraren urrengoa izango duk!. Emen galtzen ba'gaituk, nola aurkituko diagu bidea, dana berdiña izanik? Oraingoz bakardade ontan oitu bearra zeukagu eta geroago, gure aurretik emen egon diranek egin dutena egin bearroko diagu.

Ez zuten asko pentsatzen geroago pasa bearroko zituztenen asera bakarrik zala, baiña egun neketsua izan zutelako ibillaldi luzeagatik eta beren bizimoduaren aldaketagatik, kezkek alde batera utzirik, oeratu, obeto esanez, lastaira gainean etzan ziran eta soin nekatuak loa premizkoa duanez, gau guztia lo batean igaro zuten.

Urrengo goizean azaldu zan "rantxo" ko arduraduna zal-gurdi ariñ batean, eta, arto-iriña, olio, tomate eta piper-poto batzuk, kafea txikoriarekin naastua eta era

ortako janariak utzi zizkien, euren otorduak atontzeko bear zituztenak. Ondoren, zertaz arduratu bearko zuten, beren eginkizuna zer izango zan, eta aolku batzuk ere eman zizkien egoera berezietan nola jokatu. Adibidez, gaisotasunen bat sortzen ba'zitzaien edo beste erako larritasunen batean aurkitzen ba'ziran.

Beren eginbearra, ugazabaren barrutietan, kilometro askotako alambre-esiz inguratuetan bazkatzen ziran bei, txal eta zekor taldea, zezen batzuk tartean ziralarik, zaintzea izango zala, au da, bei-zaintzako lanak egin bearko zituztela. Orretarako, zaldiz ibiltzen ikasi bearko zutela, egunaren ordutik geienak batera ta bestera ibiltzeko, abelgorriak esitik kanpora alde egin ez zezaten, lapurrek eraman ez zituzaten edo piztien janari biurtu ez zitezen.

Bakoitzak bere aldetik ibilli bear zula eta illunabarrerako bizi ziran txabola ingurura ganadu guztia bildu bearko zutela, eta erbiak bezala, begi bat irikiarekin lo egin "gau-txoriek" inguratuta bereak egin ez zituzaten. Su-izkillu bana eman zien, gauez zerbait somatzen ba'zuten, ganaduak marruz edo orrelako zerbait, lenengo tiro batzuk aidera botatzeko esanez eta ondoren inguruak astertu ea ezar nabarmenik ikusten ote zuten.

Gosaria eta aparia bien artean moldatu bearko zutela eta eguerdiko otordua, puska-legorrezkoa, ere bai.

Leengo unaiak alde egin zuten eskeroztik, beste barrutietan zeuden bei-zaiñek egiten ari zirala, aurrerantzean berak egin bearko zuten lana.

Gauza oso larriren bat gertatzen ba'zan, bietako bat urbil zedilla bera bizi zan "rantxo" ra, geltoki ondoan kokatua zegon erritik iru bat kilometrora, muiño txiki baten egalean aurkitzen zana, berria berari ematera. Baiña ori, arazoa benetan larria baldin ba'zan, bestela, bera, astean bein edo bi aldiz azalduko zala gauzak nola zijoazten ikustera eta gertatzen ziran gora-beerak bertan zuzenduko zitula.

Arduradunak alde egin zuanean, otordua atondo zuten aal zan modurik obereanean eta bata-besteari begira gelditu ziran. Alako batean Pello Joxe'k isiltasuna autsi zuan, esanez. "Au dek marka, au dek bakardadea somatzen dudana!. Gerraren itzuli etorri gaituk onuntza eta iritxi ordurako su-izkillu bana eman ziguten, besteren ondasunak zaintzeko. Mundutik aparte bizi bearko diagu gure eginkizuna betetzeko. Larunbat gauetan ezin egingo diagu parrandarik, emen astearen egun guztiak berdiñak izango bai dituk. Eskeiñi diguten soldata, mantenua doanean izan arren, ain urria dalarik, zenbat denboran lanean ari bearko genikek etxera biurtu nai izan ezkeru, bibe-saria bakarrik ordaintzeko? Eta besterik, urte mordoska batean etxeratzerik ez dugularik, "desertore" bezala onezkero izendatuak egongo generalako, zer egin bear diagu?".

Pirmin´ek ez zuen ezer esaten, baiña nabaritzen zitzaion bere barrenko naigabea eta era ontan erantzun zion Pello Joxe´ri:

"Gazte ameslari bezala artu geniken artu genuan erabakia, gure erritik alde egitekoa gerratik aldentzeko eta era berean diru piska bat egiteko asmoekin, baiña onera iritxi ordurako nabaritu dugun zirrara ez duk makala izan. Baiña, adiskide, emen ez zioke beste erremediorik, beraz, burua altxa dezagun eta jarrai dezaiozun asitako bideari eta ikusiko diagu zer gertatzen dan, eta emengo bizimoduan oitutzen geranean, pentsatuko diagu nola jokatu eta leenago emen egon diranak egin dutena egiteko egokiera, agian, noiz bait izango diagu."

Eta batak besteari adone emanek ekin zioten beren lanari ta txabola, andik aurrera beren "landetxea" izango zana, aal zan txukunena jartzen saiatu ziran.

Arratsalde erdian azaldu zan beste unai bat, zaldiz, eta berearekin batera beste bi zaldi zekarkin; Pello Joxe eta Permin´entzat. Agurtu ondoren erakutsi zien nola atondu bear zituzten zaldiak eta baita ere abere gaiñera igotzeko eta zamakaritzarako erarik egokiena. Ondoren, irurak, zaldiz, poliki-poliki, ekin zioten zaindu bear zituzten barrutietako mugak ezagutzeari esiaren barrenaldetik eta era ortan kilometroak eta kilometroak luze zabalean ibilli ondoren, gaua inguratzen ari zalarik, abelzain bat alde banatatik zirala, abere taldea etxeratzen lagundu zien, nola jokatu bear zuten egoera bakoitzean irakatsiz. Azkenik, etxe inguruko barruti aundi batean bildu zituzten, gaua igarotzeko.

Arduradunak bezala, aolku batzuk eman zizkien, adibidez, eguna argitu ordurako berriro larrera atera bearke zituztela, egunero tokiz aldatuz, eta gauean edozer iminazio nabaritzen ba´zuten arreta aundia izateko, bada bein edo bein gertatu izan zirala abere-lapurketak.

Bakarrik geratu ziranean, aparria prestatzen asi ziran. Batek taloak egin bitartean besteak zezin zati batzuk atondu zitun patata prejitu pilla batekin, gaueko otordurako eta urrengo eguadirako puska-legorra.

Apalondoan, berriketaldi bat egin ondoren, bost tiroko su-izkilluak kargatu eta alboan zituztela oeratu egin ziran.

Gaua lasai igaro zuten eta egun-sentian esnatu ziran, esnatzaile-ordukariaren bearrik gabe, bada argi-begiarekin batera kanpoaldean zeudenak marruka asi bai ziran, askatasun eske barrutietan zear ibiltzeko.

Jaiki ziranean, gosalgua, bakoitzak bere puska-legorra zorroan sartu ta abeltaldearen alde banatan jarriarik ekin zioten beren unaitzako lenengo lan-egunari.

Egun ari zegokion barrutira iritxi ziranean ekin zioten beizantzari; egia esan, berak baiño obeto zekiten beitaldea osatzen zutenek zer egin bear zuten. Belarra bazkatu onenetik-onenera geroago ausnartzeko eta abelzaiñen egitekoa, berriz, saillean-saillean ibillaldia egiñaraztea. Era ontan egun osoa igaro ondoren gaua urbiltzen ari zalarik, etxe aldera jo zuten eta batere oztoporik gabe etxe-ordean gaduak utzi ta etxeratu egin ziran, etxeko lanak egitera.

Pozik ziran egun osoa patxaran igaro zutelako, ustegabekorik gertatu gabe. Apalondoan, berriketaldi bat egin ondoren azkar xamar oeratu ziran; lenengo aldiz zaldi gaiñean egunaren ordurik geienak pasa ondoren anka tartekak eta izterraldeak nekatuak bai zeuzkaten. Nola nai ere animoso zeuden lenengo jardunaldia ongi igaro zutelako.

Era ontan, gero ta oituagoak gertatzen ari ziralarik etsitzen zijoazen eta, illean bein edo, banaka, errira inguratu-ta egun-pasa egiten zuten, gutizi zituzten gauza batzuk erosiz, naiz eta errixka artan aukera aundirik ez izan, eta illunabarrerako etxeratu, bada ez bada ere, illunpean bakarrik ez ibilitezarren.

Eta modu ortan, asteak, illak eta urteak ere bai, igarotzen ari ziran eta gure gazteak aspertzen asiak zeuden bizimodu aretaz.

Mundu ontan gauzak ustegabeen gertatzen diralarik, gertakizun tamalgarri baten ondorioz Pello Joxe´ren etorkizuna zearo aldatu zan.

Tarteka egiten zuten egun-pasa oietako batean, Pirmin´ek, errian eguna igaro ondoren etxerako bidea artu zuan, eta burni-bide inguruan zijoala, atzekaldetik zertoren tren batek, geltokira irixteko abiada gutxitzen ari zalarik, txistu luze bat jo zuan, eldu zala adierazteko, eta orro arrek zaldia aztoratu egin zuan laisterka-biziari ekiñez. Uste gabeko jokaerak, gaiñean zijoanari bere egoera galdu erazi egin zion eta burni-bide bazterrera erori zan gure Pirmin gizarajoa, konorte gabe gelditurik. Zoritxarrez, trena bertan zalarik eta bultzia gelditzeko aalegiñak egin arren gidariak, aurrekaldean artu ta metro batzutan arrastaka eraman ondoren, soiña zearo txikituta illotzik utzi zuan bide bazterrean.

Bereala inguratu ziran erritarrek eta ezagaturik nor zan, bere arduadunari gertatutakoen berri eman zioten. Arduraduna urbildu zanean, bereala ildakoaren ardura artu zuan eta epailarien baimenarekin kanposantura eraman zuten, urrengo egunean eortzitzeko asmoarekin.

Ondoren, Pello Joxe´rengana joan eta gertatukoaren berri eman zion, urrengo goizean lurperatuko zutela adieraziz eta bera an izatea naiko lukeela; bitartean bidaliko zitula beste batzuk abel-taldea zaintzera.

Pirmin´ek ez zuen ezer esaten, baiña nabaritzen zitzaion bere barrenko naigabea eta era ontan erantzun zion Pello Joxe´ri:

"Gazte ameslari bezala artu geniken artu genuan erabakia, gure erritik alde egitekoa gerratik aldentzeko eta era berean diru piska bat egiteko asmoekin, baiña onera iritxi ordurako nabaritu dugun zirrara ez duk makala izan. Baiña, adiskide, emen ez zio besterremediorik, beraz, burua altxa dezagun eta jarrai dezaiozun asitako bideari eta ikusiko diagu zer gertatzen dan, eta emengo bizimoduan oitutzen gerranean, pentsatuko diagu nola jokatu eta leenago emen egon diranak egin dutena egiteko egokiera, agian, noiz bait izango diagu."

Eta batak besteari amore emanez ekin zioten beren lanari ta txabola, andik aurrera beren "landetxea" izango zana, aal zan txukunena jartzen saiatu ziran.

Arratsalde erdian azaldu zan beste unai bat, zaldiz, eta berearekin batera beste bi zaldi zekarkin; Pello Joxe eta Permin´entzat. Agurtu ondoren erakutsi zien nola atondu bear zituzten zaldiak eta baita ere abere gaiñera igotzeko eta zamakaritzarako erarik egokiena. Ondoren, irurak, zaldiz, poliki-poliki, ekin zioten zaindu bear zituzten barrutietako mugak ezagutzeari esiaren barrenaldetik eta era ortan kilometroak eta kilometroak luze zabalean ibilli ondoren, gaua inguratzen ari zalarik, abelzain bat alde banatatik zirala, abere taldea etxeratzen lagundu zien, nola jokatu bear zuten egoera bakoitzean irakatsiz. Azkenik, etxe inguruko barruti aundi batean bildu zituzten, gaua igarotzeko.

Arduradunak bezala, aolku batzuk eman zizkien, adibidez, eguna argitu ordurako berriro larrera atera bearke zituztela, egunero tokiz aldatuz, eta gauean edozer iminazio nabaritzen ba´zuten arreta aundia izateko, bada bein edo bein gertatu izan zirala abere-lapurketak.

Bakarrik geratu ziranean, aparria prestatzen asi ziran. Batek taloak egin bitartean besteak zezin zati batzuk atondu zitun patata prejitu pilla batekin, gaueko otordurako eta urrengo eguadirako puska-legorra.

Apalondoan, berriketaldi bat egin ondoren, bost tiroko su-izkilluak kargatu eta alboan zituztela oeratu egin ziran.

Gaua lasai igaro zuten eta egun-sentian esnatu ziran, esnatzaile-ordukariaren bearrik gabe, bada argi-begiarekin batera kanpoaldean zeudenak marruka asi bai ziran, askatasun eske barrutietan zear ibiltzeko.

Jaiki ziranean, gosalgua, bakoitzak bere puska-legorra zorroan sartu ta abelaldearen alde banatan jarriarik ekin zioten beren unaitzako lenengo lan-egunari.

Egun ari zegokion barrutira iritxi ziranean ekin zioten beizantzari; egia esan, berak baiño obeto zekiten beitaldea osatzen zutenek zer egin bear zuten. Belarra bazkatu onenetik-onenera geroago ausnartzeko eta abelzaiñen egitekoa, berriz, saillean-saillean ibillaldia egiñaraztea. Era ontan egun osoa igaro ondoren gaua urbiltzen ari zalarik, etxe aldera jo zuten eta batere oztoporik gabe etxe-ordean ganaduak utzi ta etxeratu egin ziran, etxeko lanak egitera.

Pozik ziran egun osoa patxaran igaro zutelako, ustegabekorik gertatu gabe. Apalondoan, berriketaldi bat egin ondoren azkar xamar oeratu ziran; lenengo aldiz zaldi gaiñean egunaren ordurik geienak pasa ondoren anka tartekak eta izterraldeak nekatuak bai zeuzkaten. Nola nai ere animoso zeuden lenengo jardunaldia ongi igaro zutelako.

Era ontan, gero ta oituagoak gertatzen ari ziralarik etsitzen zijoazen eta, illean bein edo, banaka, errira inguratu-ta egun-pasa egiten zuten, gutizi zituzten gauza batzuk erosiz, naiz eta errixka artan aukera aundirik ez izan, eta illunabarrerako etxeratu, bada ez bada ere, illunpean bakarrik ez ibilitezarren.

Eta modu ortan, asteak, illak eta urteak ere bai, igarotzen ari ziran eta gure gazteak aspertzen asiak zeuden bizimodu aretaz.

Mundu ontan gauzak ustegabeen gertatzen diralarik, gertakizun tamalgarri baten ondorioz Pello Joxe´ren etorkizuna zearo aldatu zan.

Tarteka egiten zuten egun-pasa oietako batean, Pirmin´ek, errian eguna igaro ondoren etxerako bidea artu zuan, eta burni-bide inguruan zijoala, atzekaldetik zertoren tren batek, geltokira irixteko abiada gutxitzen ari zalarik, txistu luze bat jo zuan, eldu zala adierazteko, eta orro arrek zaldia aztoratu egin zuan laisterka-biziari ekiñez. Uste gabeko jokaerak, gaiñean zijoanari bere egoera galdu erazi egin zion eta burni-bide bazterrera erori zan gure Pirmin gizarajoa, konorte gabe gelditurik. Zoritxarrez, trena bertan zalarik eta bultzia gelditzeko aalegiñak egin arren gidariak, aurrekaldean artu ta metro batzutan arrastaka eraman ondoren, soiña zero txikituta illotzik utzi zuan bide bazterrean.

Bereala inguratu ziran erritarrek eta ezagaturik nor zan, bere arduadunari gertatutakoen berri eman zioten. Arduraduna urbildu zanean, bereala ildakoaren ardura artu zuan eta epailarien baimenarekin kanposantura eraman zuten, urrengo egunean eortzitzeko asmoarekin.

Ondoren, Pello Joxe´rengana joan eta gertatukoaren berri eman zion, urrengo goizean lurperatuko zutela adieraziz eta bera an izatea naiko lukeela; bitartean bidaliko zitula beste batzuk abel-taldea zaintzera.

Urrengo egunean, lurperatu zutenean, ain naigabetua aurkitzen zan Pello Joxe, bere etxera eraman zuan arduradunek.

Pello Joxe'k ildakoen berri eman zion, oso mutil ona izan zala bere bizi guztian, jakin eraziz. Aurtzaroan, aita ta ama illik, umezurtz gelditu zanean, auzoko batzuk bere semetzat artu zutela eta noiz nai aitortzen zula zenbateraiño zorra zien bere guraso-ordekoei eta nola edo ala, egunen batean ordainketa bat egin naiko liekela bere esker onaren agerpen bezala.

Ori entzunik, arduradunek bereala egin zituan moduak Buenos Aires'en bizi zan "rantxo" ko jabearen bitartez Pirmin'en ondasun urriak, an igaro zitun bost urteetan aurreratutakoak, guraso-ordekoei bidaltzeko, jaioterrian illeta-elizkizunak egin zizaizkioten eta gaiñontzekoa eurentzat izatekotan. Era ontan bete zuten ildakoaren borondatea.

Pello Joxe, ogei ta bost urte osotuak zituelarik, oso mutil egokia zan, pizkorra eta langille trebea. Orregatik, bere begiko zuan arduradunek eta bere apaltasuna ta zintzotasuna aurpegian nabarmentzen zitzaion. Ildakoaren arazoa konpondu zutenean, arduraduna era ontan mintzatu zitzaion Pello Joxe'ri.

Aspalditik zeukala bere alde zerbait egiteko gogo bizia eta gertatu zana gertatu zalarik, bere gooa betetzeko egokiera ezin ohea zala.

Geiago ez zala biurtuko lengo barrutira, bere laguntzaille izango zala aurreantzean, sari ohea irabaziko zula eta beste eginkizun batzutat arduratu bear ko zala. Bera urteetan aurrera zijoalarik, eginbear asko bere esku utziko zitula, arretaz eta buruz jokatuko zula ziur zegoalako.

Naiz eta oso naigabetua egon bere adiskide miñari gertatutakoarekin, poz aundi bat nabaritu zuen Pello Joxe'k gauza aiek entzun zituanean, konturaturik zenbateraiño aldaketa gertatu zitekeen bere etorkizunean.

Ondoren, bere kokaleku berria izango zan lekura eraman zuan, arduraduna bizi zan etxearen aldamenen zegoan etxola batera, eta otorduak bere etxean egingo zitula agindu zion.

Bazkaltzeko garaia zalarik, berarekin batera urbildu zan arduraduna, bizi zan etxera, eta bere emazteari eta bi alabei aurkestu zien, Pello Joxe. Emaztea, naiz eta berrogei ta amar urte beteak izan, emakume gordiña zegoan artean eta gaztaro ko edertasuna oraindik zimeldu gabea zeukan, eta, alabek, zer esanik ez, ogeita iru bete berriak zaarrenak eta emezortzi besteak zituztelarik, ampolaiak ziruditen. Ama pollita izan ba'zan alabak ez ziran bazterrean uztekoak, zaarrena batez ere. Emaz-

tea, naiz an jaioa izan, guraso euskaldunen alaba zalarik, euskeraz mintzatzen zan eta alabek ere bai. Etxe artako izkuntza, euskera zan.

Bazkaltzen ari ziranean, Pello Joxe zearo kokildua aurkitzen zan, beretzat dana berria bai zan, inpernutik zerura bezalako aldaketa gertatu bai zan ordu gutxitan beretzat. Baiña, bereziki, alaba zaarrenaren arrosa koloreko matraillak ikusi zituanean, barruan lo zegoan “xomorroa” ernaitu egin zitzaion eta esan daiteke une artan maitte-mindurik geratu zala eta otorduko denbora guztian ez zuan adorerik izan neskatxari aurrez-aurre begiratzeko, ain zoragarria ikusten bai zuan bere aurrean zegoen neska xarmagarria.

Ortan bukatu zan bazkaria. Pello Joxe´rentzat urte askotan egin zuan onena gertatu zan, baiña zerbait aldatu zan bere barruan, bere bizitza beste erabatekoa ikusten zuan une artan, batez ere, amak, arduradunaren emazteak, egin zion arrera onarekin. Neskatxak ere, naiz eta aal zuan modurik onenean izkutatatu, zerbait nabaritu zuela urrengo egunetan ederki nabarmendu zuan, bada, bera pollita ta egoikia ba´zan, mutilla ez zan bazterrean uzteko oietakoa eta, bereziki, aitag bere aldeko aipamenak egin zituan ezkerostik.

Apaltzerakoan berriro ere bata bestearen aurrean aurkitu ziran, baiña patxara ederrean igaro zan otordua eta gure mutilla erretiratu zan bere kokalekura.

Lokartzea asko kosta zitzaion. Batetik, adiskidearen ezbearrak oso naigabetua utzi zuelako, bestetik berriz, arduradunak egin zizkion eskentzekin zoraturik zegoalako eta bereziki, otorduko garaian, jan-gelan egurats bera arnasten zutela bere barrena zirikatatu zuan neskatxak eta berak, gogamenetik kendu eziñik, orduak eta orduak igaro zituan jira-biraka oean, lo artzeke.

Urrengo goizean, Pello Joxe´k “dutxa” eder bat artuta bizarra kendu ondoren, gosaltzera urbildu zanean, beste bat zirudin, naiz eta oraindik bere aurpegian nabarmendu barrutietan igaro zituan bost urte luzeetan, bere adiskide Pirmin´ekin batera, jasan bear izan zituan neke ta naigabeak, bero ta ekaitzak, etorkizunik gabeko egoera larri artan. Garbitasun gutxi, jana nola edo alakoa, dana berak egin bear, ezertarako gozotasunik gabe eta etxetik irten ziranean egin zituzten ametsak ezingo zituztela ornitu konturaturik, irabazten zuten sari urriarekin ez bai zegoan miraririk egiterik. Baiña, zorionez, gauetik goizera bere arazoa zearo aldatu zala ikusten zuan eta gaztetasunak berarekin duan beste doai ori, erromantismoa, ernaitu zitzaiolarik, txoriak egun sentian aurkitzen diran bezain alai zegoan.

Gosalondoan, arduradunarekin batera, bere zal-gurdi ariñean ibillaldiak egiten asi ziran eta era berean Pello Joxe´ri irakasten nola arduratu bear zuan ugazabaren aginduak betetzen. Beiak, bigantxak, idiskoak eta gaiñontzeko abereak mailletan

jarriz, noizik bein Buenos Aires´era aragitarako bidaltzeko taldeak osotuz eta egu-
nero berari jakin eraziz barruti bakoitzeko gora-beerak; zenbat buru aurkitzen zi-
ran, zenbat jaio ziran eta abar. Orretaz gaiñera, barrutietan sakabanaturik zeuden
abel-zaiñen bearrak ornitu bearko zitula, astean bein janariak eramanez eta era or-
tako eginkizunak egiñez. Itz batean, berak egiten zituan lanetaz arduratu bear zala,
kontuan izanik orretarako konfiantza osoa eskeintzen ziola. Pello Joxe´k apal-apal
erantzun zion, ez kezkarik izateko, berarengan jarri zuan usteari ez ziola beñere
iruzur egingo eta oso pozik aurkitzen zala bere ardurapean.

Era ortan gure mutillak ekin zion lanari eta bai zintzoaski saiatu ere bere egin-
bearrak betetzen. Arduraduna oso pozik zegoen bere ordezkoren jokabidearekin
eta bere emaztea ere bai, bada aspaldi artan, kontuan izanik bere senarraren erren-
kurak-aren bizitza ere latza izan bai zan urte askotan oso kezkatu, oso bildurtu aur-
kitzen zan egunero egin bear zituan ibillaldiakgatik, naiz eguraldi ona naiz egu-
raldi txarra izan. Bestaldetik, berriz, gero ta atsegiñago zitzaion bere senarraren la-
guntzaillea, ain jatorra eta leiala zala ikusirik eta bere barruan egiten zituan ame-
tsak egi biurtzeko zaleturik zegoan, konturatzen bai zan bere alaba zaarrenari be-
giratu xamurrak egiten zizkiola Pello Joxe´k, eta, era berean, alabaren masaillak
marrubi kolorekoak biurtzen zirala mutillaren begiak berari begira zeudela kon-
turatzen zanean.

Eta, barazkiekin gertatzen dan bezela; azia erein eta ernetzen danean, poliki-
poliki, baiña gelditu gabe, batez ere giroak laguntzen duanean, orrelako zerbait na-
baritzen danean, burutik kendu eziñik, azkenik zorionbide gertatzen da. Nabar-
men zegoen arazo ontan giro ezin ohea zala, eta azkenik, ez bat eta ez bestea iñor
ez zalarik lenengo pausoa ematera ausartzen, ama bera izan zan, neskarekin len-
dabizi eta urrena mutillarekin mintzatu zana; Pello Joxe ez bai zan ausartzen orren-
beste on egin ziotenei ain garrantzizkoa zan eskari bat egitera.

Aitak, berriz, eruen baitan, ez ikusia egiñez, es zion oztoporik jarri bere emaz-
tearen ausardiari, ura bai zan etxeoandrea, etxeo arazoetan "galtzaduna".

Gazteek berriz, gero-ta txoratuagoak zabiltzan, dana arrosa kolorekoa ikusten
bai zuten eta andik sei bat illabetera, elkarrenganako erakarpena ainstesteraiñokoa
zalarik, amaren onespenearekin eta zer esanik ez, aitarenearekin, eskontzea eraba-
ki zuten.

Gurasoek, berak bizi ziran inguruan, etxetxo polit bat eraikiko zietala agindu
zieten, beren "kabi" izateko.

Mutillak, zekien moduan, bere jaiotexera idatzi zuan, etxetik irten zan ezke-
rozitik gertatu zitzaizkion gertaerak kontatuz; jasan bear izan zituan urte latzak, bere

adiskidearen eriotz tamalgarria eta abar. Adiskidearen ezbeharren ondoren gauzak zearo aldatu zirala berarentzat eta, zorionez, eskontzera zijoala eta eleiz-agiak bidaltzeko, elizaz ezkondu nai zulako.

Oraingoaz, desertore zalarik, berrogei urte bete arte ez zeukala urbiltzerik bere lurraldera. Bere emaztea gaia, euskaldunen alaba zalarik euskeraz mintzatzen zala eta beste zeastasun batzuk emanez. "Goikoerrotaberrigorri" koek asko poztu ziran Pello Joxe´ren eskutitza jaso eta irakurri zutenean, batez ere bere ama gaxoa, sei urte leenago etxetik irten zanean, zillarezko berrogei "duro" musu-zapiaren murturrean loturik eman zizkiona.

Andik illabete pare batera gurasoen erantzuna iritxi zan Pello Joxe´ren eskutara ta berarekin batera ezkontzeko bear zituan eliz-agiriak. Bere jaiotetxean ez zan aldaketa aundirik gertatu berak alde egin zuan eskeroztik, eta gure mutilla asko poztu zan gauza oiek jakin zituenean.

Prestaketak egin ondoren ezteaik ospatu zituzten, bizi ziran erritxo artan elizarik ez zegoelarik, andik berrogei ta amar kilometrora zegoen baseliza batean elizkizuna egiñez.

Orduan bere jaioterrira joaterik ez zuan izan Pello Joxe´k, "desertor" zalako eta egoera onen epea bukatu zanean, 1940´garren urte inguruan, anai arteko guda mardarikatua bukatu berria zalarik, gauzak ez zeuden batere ongi euskaldunentzat eta orregatik ez zan ausarditu bere errira urbiltzea ikustaldi bat egitera. Eta era ortan, adiñean aurrera zijoan, 60 urte bete zituanean, zituzten iru seme-alabak ezkonduak zeuden eta sei billoben aitona zan, aitagiarrereba illa zan ordurako eta bere gain geratu zan "rantxo" aren ardurapena.

Bestaldetik, berriz, bere gurasoak ere beste mundura joanak ziran, bera sortu zan sendia bukatzen ari zan eta berak sortutakoa an zegoelarik, Pello Joxe´k gaztaroan egin zituan ametsak "indiano" baten antzera errira biurtuko zala, ortan geratu ziran. Azkenik Argentina gertatu zan bere bigarren aberria, zoriona an aurkito zuelako.

Eta ipuin onen laburpena au izan dedilla; bi lagunek gaztaroan artu zuten jobabidea eta era berean egin zituzten ametsak, ustelak gertatu zirala. Batentzat atzerirratzea zoritxarra gertatu zala eta bestearentzat, berriz, alabearrez, zorion-bide gertatu zala, baiña bere sorlekutik, ain maite zuan aberritik urrun.

Andoni Kortajarena

EGINDAKO PROMESA ZINTZO BETE BEAR DA ("Intxaurrondo Primera Páginá", 1989)

Ipuin ontan aipatzen dana egizkoa baldin ba´da, orain 60/70 urte gertatua izango da, garai aietan egiten bai-ziran era ontako "promesak"

Trinido eta Mañuel, gaztetandik adiskide miñak ziranak, arrantzaleak ziran ogibidez, "Gran Sol" ´en zortzi egunetako arrantzaketan ibiltzen ziranetakoak.

Negu artan itsas-ekaitz gogor asko jasan bear izan zitusten, baiña aietako batean bizirik ez zirala aterako etsita zeudelarik, nola edo ala, naiz euren ontziari tximinia eta lemariaren zubia ur-kolpe batek eramán, "arribadan" kaieratzea lortu zuten. Aipatutako une larri aietan, batak besteari zin egin zioten, Donosti´tik Lezo´ra oiñez joango zirala Santo Kristo´ri eskerrak ematera egoera larri artatik bizirik ateratzen baldin ba´zitan. Ibillaldia itzik egin gabe egingo zutela eta, gogorragoa izan zedin, oiñetako bakoitzean ogei garbantzú ale sartuko zituztela.

Etixeratu eta andik egun batzutara, euren onera etorri ziranean, ibillaldia egiteko eguna izendatu eta goizeko seiretan irtengo zirala erabaki zuten.

Manuel´ek, bere ustez, burutapen on bat izan zuan, eta iñori ezer esan gabe, bere neurrikoak baiño askoz aundiagoak ziran uretako-bota batzuk lortu zituan eta baita artillezko galtzerdi lodi batzuk ere. Garbantzú aleak berriz, alerik txikiak paperetan bildurik oiñetakoen barruan ongi tolestatuta jarri zituan. Esandako lekuan eta agindutako orduan elkartu ziran eta burua makurtuta agurtuz, ibillaldiari asiera eman zioten. Bata bestearen ondoan zijoazten, ixil-ixillik, eta Manuel´ek ezin zuan ulertu nola zijoan Trinido ain lasai eta patxaran eguneroko oiñetakoekin.

Bost bat kilometro igaro zituztenerako, garbantzúak bilduta zijoazten paperak izerdiarekin autsi egin ziran eta Manuel´i, pauso bakoitzean, aleak sastakatzen asi zitzaizkion. Bide basterrean arri baten gaiñean eseri bear izan zuan eta aal zuan bezala berriro tolestatu eta jarraitu zuan ibillaldia. Bitartean, Trinido, serio-serio eta ixilik.

Noiz bait iritxi ziran Lezo´ra, Manuel´en gurutzbidearen bukaerara; oiñetakoak kendu eta meza oiñutzik entzun zuan gizajoak, oiñaze artean.

"Promesa" betea zutelarik, bere lenengo itzak auek izan ziran:

- "Nola arraio egin duk ibillaldia ain patxara ederrean?"

- Trinidok erantzun: "Iru egunetan uretan beratzen euki diskíat garbantzúak eta gero lau ordu osotan eltze batean irakiten, ez bai genuan esan aleak gordiñik egon bear zutenik".

Mañuel aaaaaa...ooo zabalik gelditu zan ori entzun zuanean konturaturik berak uste zuan baiño bizkorragoa zala Trinidad.

Andoni Kortajarena